BESTELAKO XEDAPENAK

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA

4478

EBAZPENA, 2015eko urriaren 13koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariarena, Asociación ARPEKO (Colectivo de Animación Socio-Cultural) erakundeak 2012ko urterako euskal lankideei laguntzak emateko deialdiaren barruan aurkeztutako «Fortalecimiento área Discapacidad Intelectual del Plan Estratégico Fe y Alegría» proiektua gauzatzeko diru-laguntzaren zati bati uko egiteko KOP-2012P2/0006 lankideak egindako eskaera onartzen duena.

Euskal lankideentzako laguntzak 2012. urterako iragartzen dituen Lehendakaritzako idazkari nagusiaren 2012ko apirilaren 25eko Ebazpenaren bidez, Asociación ARPEKO (Colectivo de Animación Socio-Cultural) erakundeari 35.854 euroko diru-laguntza eman zitzaion «Fortalecimiento área Discapacidad Intelectual del Plan Estratégico Fe y Alegría» proiektua gauzatzen laguntzeko.

Erakunde horrek, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziari 2015eko irailaren 21ean bidalitako komunikazioan, txostenean adierazten diren arrazoien ondorioz uko egiteko eskaera partziala aurkeztu zuen.

Eskaera aztertu ondoren, Koordinazio Teknikoaren Zerbitzuak erakunde onuradunak uko egiteko eskaeraren aldeko txostena egin zuen.

Garapena eta Lankidetza Sustatzeko Fondoaren kargurako euskal lankideei diru-laguntzak arautzen dituen maiatzaren 31ko 124/2005 Dekretuaren 11. artikuluak ezarritakoaren arabera, lankide boluntarioaren lana funtsean alda dezakeen edozein gorabehera gertatzen bada, diru-laguntza jaso zuen erakundeak berehala jakinarazi beharko dio Garapen Lankidetzarako Zuzendaritzari. Hortaz, Garapen Lankidetzarako zuzendariari dagokio baldintzak aldatuko dituen Ebazpena ematea, eta hala badagokio, emandako diru-laguntzaren zenbatekoak berregituratuko dira, diru-laguntza horiek emateko ezarritako mugak aplikatuz, eta pertsona, erakunde eta entitate onuradunek neurriz kanpo jasotako zenbatekoak itzuli egin beharko dituzte.

Hala ere, proposatutako aldaketak onartzeko eskumenari dagokionez, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu, arautu eta jardunean jarri ondoren (ekainaren 19ko 5/2008 Legea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duena; martxoaren 23ko 95/2010 Dekretua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren antolaketa eta funtzionamenduko erregelamendua onartzen duena; azaroaren 23ko 310/2010 Dekretua, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren jarduerak abiaraztea arautzen duena), aipatutako eskumena eta, oro har, laguntza horiek kudeatzeko behar diren ebazpenak ematea Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren zuzendariari dagokio.

Horren ondorioz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Asociación ARPEKO (Colectivo de Animación Socio-Cultural) erakundeari 2012ko urterako euskal lankideei laguntzak emateko deialdiaren barruan aurkeztutako «Fortalecimiento área Discapacidad Intelectual del Plan Estratégico Fe y Alegría» proiektuari uko egiteko lankideak egindako eskaera onartzea.

Horren ondorioz, Erakundeak ordainketatik justifikatu ez duen kopurua itzuli beharko du, hau da, 1.547,87 euro.

Bigarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren lehendakariari, hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera kontatzen hasita. Gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu eta hiru hilabete igarota oraindik ez bada ezer ebatzi, errekurtsoa ez dela onartu pentsatu beharko da, eta administrazioarekiko auzietarako bidea irekiko da.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko urriaren 13a.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako zuzendaria,
PAUL ORTEGA ETCHEVERRY.